Las entrevistas personales se realizarán el día 9 y 10 de diciembre de 2014. Si el/la candidato/a no se presentara a la entrevista en la fecha y hora asignadas, quedará automáticamente excluido/a del proceso de selección, salvo causa de fuerza mayor o falta debidamente justificada.

El día 11 de diciembre de 2014 se publicará la lista provisional de personas seleccionadas según orden de puntuación.

Se podrán presentar alegaciones hasta el día 15 de diciembre. Las alegaciones serán resueltas por la Comisión de Valoración con carácter previo a la publicación de la lista definitiva de personas seleccionadas.

La lista definitiva de personas seleccionadas según orden de puntuación así como la lista de reservas se publicará el día 16 de diciembre de 2014.

LUGAR PARA PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Las instancias de solicitud para participar en el programa de empleo y el resto de documentación asociada a la solicitud, se deberán entregar, dentro del plazo estipulado **del 17 al 28 de noviembre de 2014 (hasta las 15:00 horas)** en las oficinas de Meatzaldeko Behargintza sitas en:

Meatzaldeko Behargintza
Avenida de la Estación, 14 - Bajo
48530 - Ortuella
Tfno.: 944044958 // Fax: 944044959
E-mail: oficinas@behargintza-zm.com



Horario de atención al público: De 8:00 a 15:00 horas

8.- Relación de seleccionados/as.

Finalizada la calificación de los/as aspirantes, una vez se hayan puntuado los méritos de la fase de concurso y la entrevista personal, la Comisión de Valoración hará pública la relación de seleccionados/as por el orden de puntuación. La Comisión elevará la propuesta a los responsables de Meatzaldeko Behargintza para que suscriban los contratos de trabajo pertinentes. Las personas no seleccionadas, permanecerán en "lista de reserva" según orden de puntuación.

9.- Aceptación de las bases.

La participación en el proceso de selección supondrá la aceptación expresa de las presentes bases. La Comisión de Valoración se reserva la potestad de regular cualquier aspecto que no venga mencionado en las bases y de interpretar el contenido de las mismas.

En Ortuella, a 17 de noviembre de 2014.

Fdo.: Saulo Nebreda Trevejo
Consejero Delegado



ZIERBENAKO UDALEKO "OBRA ETA ADMINISTRAZIO SAILARI LAGUNTZA EMATEKO" PROGRAMAN PARTE HARTZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

1.- Sarrera.

Meatzaldeko Behargintzak, bere jardunaren baitan lana eta Meatzaldea eskualde osoaren garapena bultzatu beharreko eremu bezala hartzen ditu; horren helburua da, gizarteak oro har irabaziak atera ditzala jardun horretatik.

Enplegu programek parte hartzen dutenek beren trebakuntza hobetzea ahalbidetzen dute, aldi berean, kontratazioek irauten duten bitartean soldata irabazten dute. Enplegu programen azken helburua da, parte hartzaileen trebakuntza eta enplegu maila hobetzea.

Zierbena udalerrian dagoen desenplegu egoerari aurre egiteko eta enplegarritasuna bultzatzeko asmoz, ondorengo lanpostuak betetzeko 5 lagun kontratatuko dira: zerbitzu anitzeko 3 peoi espezialista, zerbitzu anitzeko 1.mailako ofizial igeltsero, 1 eta 2.mailako administrari-ofizial 1, lanaldi erdian, Zierbenako Udaleko Obra eta Administrazioari laguntza emateko.

2.- Oinarrien xedea.

Oinarri hauen xedea da, "Zierbenako Udalaren Obra eta Administrazio Sailari Laguntza Emateko Programa"-ko 5 lanpostu hauetakoren bat lortzeko hautaketa prozesua arautzea.

3.- Parte-hartzaileak hautatzeko Balorazio Batzordea.

Hautaketa prozesua Meatzaldeko Behargintzako teknikariek osatutako Balorazio Batzordeak egingo du. Hautaketa hau programan parte hartzeko eskaera orria garaiz eta forman aurkeztu duten hautagaien artean egingo da, eta, oinarri hauetan agertzen diren irizpideekin bat etorriz, hautagaiek aurkeztu duten dokumentazioa barematu eta elkarrizketak egingo dira.

Prozesuak aurrera era egokian egin dezan, sortzen diren zalantzak argitzeko eta beharrezkoak diren akordioak erabakitzeko eskumena izango du Batzordeak. Beharrezkoa balitz, hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, akatsak edota erreklamazioak zuzentzeko epea emateko aukera baloratuko du.

4.- Kontratuak, jardunak eta ordainsariak.

Bost (5) kontratu egitea aurreikusten da, lanaldi erdikoak eta hiru (3) hilabeteko iraupenekoak (kontratuen hasiera data 2014/12/17a izatea aurreikusten da, egituraz kanpoko lanpostuen bitartez).

Kontratatuko diren pertsonak gutxi gorabehera egin beharko dituzten lanak ondokoak dira:

ZERBITZU ANITZEKO 1. MAILAKO OFIZIAL IGELTSEROA (1 lanpostu):

☒ Bere lantaldearen koordinazioa eta funtzionamendu onaren ikuskapena:

- Obren zuzendaritzarekin koordinazio lanak egingo ditu, sor daitezkeen gertakarien berri emanez.
- Epeak betetzen direlako ardura hartuko du.
- Bere ardurapean dauden peioen diru-xahuketak ekidingo ditu lanean.
- Obretan erabiltzen diren materialak eta tresnak kontrolatuko ditu eta erabili behar diren tresna lagungarriak eta tresneria txikia zainduko ditu.
- Bere ardurapean dauden peioen presentzia, ordutegiak eta egin beharreko lana betetzen dutela zainduko du.
- Lan taldearen koordinazioari eta ikuskapenari dagozkion beste lan batzuk.

☒ Hainbat hiri-elementutan pintura eta mantentze lanak:

- Burdinurtuz egindako zutabeak pintatzea, duten oxidoa aldeztu aurretik kenduz.
- Burdinurtuz egindako jardinerak eta paperontziak.
- Hiri tresneriaren mantenua.
- Iturgintza lanak.
- Hormigoizko hormak.
- Lurpeko pasabideak.
- Zintarriak eta hormak.
- Burdinazko barandak, aldeztu aurretik oxidoa landuz.
- Udal eraikinen eta pabilioien fatxadak eta barnealdeak.
- Kutxatilak garbitzea.
- Estratak garbitzea.
- Putzu septikoak garbitzea.
- Bideak eta partzelak garbitzea, kimatzea etab.
- Pintatzearekin eta mantenuarekin erlazionatutako beste lan batzuk.

☒ Eraikin publikoetan mota guztietako lanak:

- Fatxadak pintatzea.
- Barnealdeak pistolaz pintatzea.
- Hiri-tresneria pintatzea.
- Gainazal desberdinak lixatzea eta tratatzea.
- Harri-hormak altxatzea.
- Zokaloak eta estaldura sinpleak jartzea.
- Enkofratu sinpleak, ateburuak eta leihoburuak egitea.
- Konponketa txikiak.
- Alikatatuak eta xaflatuak.
- Kutxatilak garbitzea.
- Iturgintza lanak.
- Eraikin publikoetan beste lan batzuk.

ZERBITZU ANITZEKO PEOI ESPEZIALISTA (3 lanpostu):

☒ Hainbat hiri-elementutan pintura eta mantenu lanak:

- Burdinurtuz egindako zutabeak pintatzea, duten oxidoa aldeztu aurretik kenduz.
- Burdinurtuz egindako jardinerak eta paperontziak.
- Hiri-tresneriaren mantenua.
- Iturgintza lanak.
- Hormigoizko hormak.
- Lurpeko pasabideak.
- Zintarriak eta hormak.
- Burdinazko barandak, aldeztu aurretik oxidoa landuz.
- Udal eraikinen eta pabilioien fatxadak eta barnealdeak.
- Kutxatilak garbitzea.
- Estratak garbitzea.
- Putzu septikoak garbitzea.
- Bideak eta partzelak garbitzea, kimatzea etab.
- Pintatzearekin eta mantenuarekin erlazionatutako beste lan batzuk.

☒ Eraikin publikoetan mota guztietako lanak:

- Fatxadak pintatzea.
- Barnealdeak pistolaz pintatzea.
- Hiri-tresneria pintatzea.
- Gainazal desberdinak lixatzea eta tratatzea.
- Harri-hormak altxatzea.
- Zokaloak eta estaldura sinpleak jartzea.
- Enkofratu sinpleak, ateburuak eta leihoburuak egitea.
- Konponketa txikiak.
- Alikatatuak eta xaflatuak.
- Kutxatilak garbitzea.
- Iturgintza lanak.
- Eraikin publikoetan beste lan batzuk.

2. MAILAKO ADMINISTRARI-OFIZIALA (1 lanpostu):

☒ Administrazio Sailari laguntzeko:

- Bizilagunen udal-eroldaren kudeaketa eta kontrola, aplikazio informatikoak erabiliz (altak eta bajak eroldan, ziurtagiriak entregatzea, beste Udal batzuekin egiaztatze lanak egitea...).
- Udal langileen agendak eta hitzorduak kudeatzea.
- Jendearentzako arreta ematea.
- Dokumentuak idaztea (gutunak bidaltzea, etiketak egitea, jakinarazpenak, etab.).
- Fakturen kudeaketa eta kontrola egitea.
- Kontabilitateko oinarriko lanak egitea, programa informatikoak erabiliz.
- Ordainketak, transferentziak, sarrerak, kutxa kontrolatzea...
- Hainbat hornitzaileekin harreman zuzena izatea.

- Udal Teknikarientzako espedienteak hasi, kudeatu eta jarraipena egitea.
- Beste erakunde edo instituzio batzuetatik jasotako eta Udal Artxibo Orokorrera eraman behar den dokumentazioari dagozkion espedienteak hasi, kudeatu eta jarraipena egitea.
- Dokumentazioa erkatzea.
- Lizentzia zehatz batzuk kudeatzea.
- Udal-hilerriaren datu-basea, jakinarazpenak, buletinak eta nitxoan epe-mugak kontrolatzea.
- Dokumentazio ofiziala prestatzea eta kontrolatzea. Iragarkiak eta buletinak kontrolatzea. Argitaratze datak eta epeak egiaztatzea.
- Ohiko eta ez-ohiko Osoko Bilkuretarako Dekretuak eta Ebazpenak prestatzea, baita Informazio Batzordeetarako beharrezkoa den dokumentazioa Zinegotzi guztientzat prestatzea ere.
- Bake Epaitegiaren dokumentazioa kopiatzea: Jaiotze-aktak, Ezkontza-aktak eta Heriotza-aktak, baita Epaitegiak berak agindutako dokumentuak maneiatzea.
- Beste administrazio-jarduera batzuk.

Aipatu pertsonala aldi baterako kontratatuko da, "obra edo zerbitzu zehatza egiteko" kontratupean, eta, hilabetean jasoko duen ordainsari gordina, lanpostu bakoitzari eta kategoria profesional bakoitzari dagokion Hitzarmenean legalki zehaztutakoa izango da. Kontratuek frogaldia izango dute:

- Lanpostua: **Zerbitzu anitzeko 1.mailako ofizial igeltseroa.**
- Kategoria profesionala: 1.maila.
- Aplikatu beharreko Hitzarmena: "Bizkaiko Eraikuntza Arloko Hitzarmen Kolektiboa" (Kod.: 48000715011981, 19. zenbakiko BAOn 2013/01/28an publikatua).
- Iraupena eta jarduna: 3 hilabeteko iraupena lanaldi erdian (astean 20 ordu).
- Kontratu mota: obra edo zerbitzu zehatza egiteko kontratua.
- Frogaldia: hilabete 1.
- Jardun osoari dagokion urteko soldata gordina: 25.515,81 €.
- Lanpostu kopurua: 1.

- Lanpostua: **Zerbitzu anitzeko peoi espezialista.**
- Kategoria profesionala: Peoi espezialista.
- Aplikatu beharreko Hitzarmena: "Bizkaiko Eraikuntza Arloko Hitzarmen Kolektiboa" (Kod.: 48000715011981, 19. zenbakiko BAOn 2013/01/28an publikatua).
- Iraupena eta jarduna: 3 hilabeteko iraupena lanaldi erdian (astean 20 ordu).
- Kontratu mota: obra edo zerbitzu zehatza egiteko kontratua.
- Frogaldia: hilabete 1.
- Jardun osoari dagokion urteko soldata gordina: 21.529,17 €.
- Lanpostu kopurua: 3.

- Lanpostua: **2. Mailako administrari ofiziala.**
- Kategoria profesionala: 2. mailako ofiziala.
- Aplikatu beharreko Hitzarmena: "Bizkaiko Bulegoen eta despatxuen Hitzarmen Kolektiboa" (Kod.: 48001755011981, 107. Zenbakiko BAOn 2011/06/06an publikatua).
- Iraupena eta jarduna: 3 hilabeteko iraupena lanaldi erdian (astean 20 ordu).
- Kontratu mota: obra edo zerbitzu zehatza egiteko kontratua.
- Frogaldia: hilabete 1.
- Jardun osoari dagokion urteko soldata gordina: 18.948,15 €.
- Lanpostu kopurua: 1.

5.- Aurkeztutakoek bete beharrekoak eta hautaketa prozesua.

AURKEZTUTAKOEN BETEBEHARRAK:

Zerbitzu anitzeko 1. Mailako ofizial igeltsero lanposturako betebeharrak:

- Espainiar herritartasuna izatea, Europar Batasuneko herrialderen bateko herritarra izatea eta Europako Erkidegoak ez diren atzerritarren kasuan, Espainian lan egiteko eta bizileku-baimena izatea.
- Hemezortzi urte beteta izatea eta, erretiratzeko gehienezko adina baino gehiago ez izatea.
- Zereginak zuzen burutzea eragotziko dion ezgaitasun funtzionalik ez izatea.
- Langabezian egotea, lanean hasteko moduan egotea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea, bai eskaera aurkezteko unean, bai kontratatzeke unean.
- Zierbenan erroldatuta egotea, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen.
- Gutxieneko (2) bi urteko lan eskarmentua egiaztatzea 1.mailako edo maila altuagoko ofizial igeltsero lanetan edo programan agertzen diren zereginetan, eraikuntza sektorean edo lorezaintzan (eskarmentua lehenagoko lan-kontratuen, enpresa ziurtagirien edota Bizitza Laboralaren bidez egiaztatuko da).
- B gida-baimena izatea.

Zerbitzu anitzeko peoi espezialista izateko 3 lanpostuetarako betebeharrak:

- Espainiar herritartasuna izatea, Europar Batasuneko herrialderen bateko herritarra izatea eta Erkidegoak ez diren atzerritarren kasuan, Espainian lan egiteko eta bizileku-baimena izatea.
- Hemezortzi urte beteta izatea eta, erretiratzeko gehienezko adina baino gehiago ez izatea.
- Zereginak zuzen burutzea eragotziko dion ezgaitasun funtzionalik ez izatea.
- Langabezian egotea, lanean hasteko moduan egotea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea, bai eskaera aurkezteko unean, bai kontratatzeke unean.
- Zierbenan erroldatuta egotea, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen.



2. mailako administrari-ofizial lanposturako betebeharrak:

- Espainiar herritartasuna izatea, Europar Batasuneko herrialderen bateko herritarra izatea eta Europako Erkidegoak ez diren atzerritarren kasuan, Espainian lanerako eta bizileku-baimena izatea.
- Hemezortzi urte beteta izatea eta, erretiratzeko gehieneko adina baino gehiago ez izatea.
- Zereginak zuzen burutzea eragotziko duten ezgaitasun funtzionalik ez izatea.
- Langabezian egotea, lanean hasteko moduan egotea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea, bai eskaera aurkezteko unean, bai kontratatzekeko unean.
- Zierbenan erroldatuta egotea, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen.
- Administrazioa eta Kudeaketa arloko ikasketak Goi Mailako edo Erdi Mailako Heziketa Zikloan (EMHZ Administrazio Kudeaketan, GMHZ Zuzendaritzari Laguntzan) edo baliokideak diren irakaskuntzak.

Lanpostu guztietarako betebeharrak:

- Programa honetan ezin izango dute inola ere familia unitate bereko pertsona batek baino gehiagok parte hartu, enplegu-eskatzaille gehiago egon ezik eta lanpostuak libre gelditu ezean.

HAUTAKETA PROZESUA:

Zerbitzu anitzeko 1.mailako ofizial igeltsero lanposturako hautaketa prozesua:

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu: lehiaketa fasea eta elkarrizketa fasea. Hautagai bakoitzaren puntuazioaren guztirakoa, lehiaketa fasean eta elkarrizketa fasean lortutako puntuazioa batuz lortuko da. Puntuazioaren batean berdinketa egongo balitz, Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda antzinakotasun handiena dutenek lehentasuna izango dute; hala ere, berdinketa mantenduko balitz, adinez nagusiena denak lehentasuna izango du.

A) LEHIAKETA FASEA:

Hautagaiek entregatutako dokumentazioa, ondoko irizpideen arabera baloratuko da:

- 1.- **Familia egoera:** gehienez 11 puntu.
- 2.- **Lan eta gizarte egoera:** gehienez 9 puntu.
- 3.- **Euskararen ezagutza:** gehienez 1 puntu.
- 4.- **Trebakuntza:** gehienez 11 puntu.
- 5.- **Aurreko udal-programetan parte hartu izana:** gehienez 5 puntu.
- 6.- **Eskarmentua:** 8 puntu.



B) ELKARRIZKETA FASEA:

- 1.- **Elkarrizketa pertsonala:** gehienez 5 puntu.

Zerbitzu anitzeko peoi espezialisten lanpostuetarako hautaketa prozesua:

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu: lehiaketa fasea eta elkarrizketa fasea. Hautagai bakoitzaren puntuazioaren guztirakoa, lehiaketa fasean eta elkarrizketa fasean lortutako puntuazioa batuz lortuko da. Puntuazioren batean berdinketa egongo balitz, Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda antzinakotasun handiena dutenek lehentasuna izango dute; hala ere, berdinketa mantenduko balitz, adinez nagusiena denak lehentasuna izango du.

A) LEHIAKETA FASEA:

Hautagaiek entregatutako dokumentazioa, ondoko irizpideen arabera baloratuko da:

- 1.- **Familia egoera:** gehienez 11 puntu.
- 2.- **Lan eta gizarte egoera:** gehienez 9 puntu.
- 3.- **Euskararen ezagutza:** gehienez 1 puntu.
- 4.- **Trebakuntza:** gehienez 11 puntu.
- 5.- **Aurreko udal-programetan parte hartu izana:** gehienez 5 puntu.

B) ELKARRIZKETA FASEA:

- 1.- **Elkarrizketa pertsonala:** gehienez 5 puntu.

2. mailako administrari-ofizial lanposturako hautaketa prozesua:

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu: lehiaketa fasea eta elkarrizketa fasea. Hautagai bakoitzaren puntuazioaren guztirakoa, lehiaketa fasean eta elkarrizketa fasean lortutako puntuazioa batuz lortuko da. Puntuazioren batean berdinketa egongo balitz, Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda antzinakotasun handiena dutenek lehentasuna izango dute; hala ere, berdinketa mantenduko balitz, adinez nagusiena denak lehentasuna izango du.

A) LEHIAKETA FASEA:

Hautagaiek entregatutako dokumentazioa, ondoko irizpideen arabera baloratuko da:

- 1.- **Familia egoera:** gehienez 11 puntu.
- 2.- **Lan eta gizarte egoera:** gehienez 9 puntu.
- 3.- **Euskararen ezagutza:** gehienez 1 puntu.
- 4.- **Trebakuntza:** gehienez 10 puntu.
- 5.- **Aurreko udal-programetan parte hartu izana:** gehienez 5 puntu.



B) ELKARRIZKETA FASEA:

1.- **Elkarrizketa pertsonala:** gehienez 5 puntu.

6.- Barematzeko irizpideak.

LEHIAKETA FASEAN, barematzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

IRIZPIDEA: "**FAMILIA EGOERA**"

1.- Seme-alabak kargura: gehienez 4 puntu.

- c) Zaintza duen aita edo amaren kasuan, etxebizitzan erroldatuta dagoen 26 urte baino gutxiago duen seme-alaba bakoitzeko: 1 puntu.
- d) Zaintza ez duen aitaren edo amaren kasuan, semea edo alaba bere kargura ulertuko da, baldin eta, horien elikagaiak ordaintzera behartzen duen sententzia irmoa edo hitzarmen erregulatzaileria dagoela egiaztatzen bada.

2.- Prestazioak kobratzea: gehienez 7 puntu.

- g) DBE jasotzen badu: 7 puntu.
- h) Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) jasotzen baditu: 7 puntu.
- i) Udal laguntza jasotzen badu (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak kudeatua): 7 puntu.
- j) Ez langabeziaren prestaziorik ez diru-laguntzarik jasotzen ez badu: 4 puntu.
- k) Langabeziako laguntza jasotzen badu: 3 puntu.
- l) Langabeziako prestazioa jasotzen badu: 1 puntu.

Oharra: Pertsonaren batek prestazio bat baino gehiago jasotzen badu, kontuan hartuko da puntu gehien ematen diona.

IRIZPIDEA: "**GIZARTE ETA LAN EGOERA**"

3.- Zierbenako Udaleko Ongizate Sailak baloratutako behar-egoera: gehienez 5 puntu

- Behar-egoera altua duela aitortzen duen txostena:.....5 puntu.
- Erdi mailako behar-egoera duela aitortzen duen txostena:...3 puntu.
- Behar-egoera baxua duela aitortzen duen txostena:.....1 puntu.
- Behar berezirik ez duela aitortzen duen txostena:.....0 puntu.

Oharra: Behar-txostena Ongizate Sailak emandako agiria da. Bertan, hautagaien behar-maila zehazten da eta erakunde esleipendunari ematen zaio



ZIERBENAKO
UDALA



(erakunde kontratatzailearen eta Ongizate sailaren arteko agiri pribatua).
Txostenik egon ezean, "0" puntu zenbatuko dira.

4.- Langabezian egindako antzinakotasun denbora: gehienez 4 puntu.

- Langabezian antzinakotasuna: 36 hilabete \geq4 puntu
- Langabezian antzinakotasuna: 24 eta 35 hilabete artean.....3 puntu
- Langabezian antzinakotasuna: 12 eta 23 hilabete artean.....2 puntu
- Langabezian antzinakotasuna: 12 hilabete baino gutxiago.....1 puntu

Oharra: langabezian egindako antzinakotasuna zenbatzeko, kontuan hartuko da Lanbiden lan eskatzaile gisa izen emanda egondako aldiei buruzko txostenean agertzen den azken epeko alta data.

IRIZPIDEA: "EUSKERAREN EZAGUTZA"

5.- Euskararen ezagutza: gehienez puntu 1

- a) Euskararen ezagutzari dagokionean, ondoren zehazten den bezala baloratuko dira titulu ofizialak:
- IVAPeko 3. Hizkuntza Eskakizuna; HABEko 3. Mailako ziurtagiria, Ertzaintzako 2. Hizkuntza Eskakizuna; Osakidetzako 3. Hizkuntza Eskakizuna; Euskararen Gaitasun Agiria (EGA); Nafarroako Euskararen Gaitasun Agiria (EGA); Euskaltzaindiako D ziurtagiria; Hezkuntzako 2. Hizkuntza Eskakizuna; EAEko, Nafarroako eta Madrileko Hizkuntza Eskoletako 5. Maila (ikasketa plan zaharra); EAEko Hizkuntza Eskolek emandako Gaitasun Maila (ikasketa plan berria).....1 puntu.
 - IVAPeko 2. Hizkuntza Eskakizuna; HABEko 2. Mailako ziurtagiria, Osakidetzako 2. Hizkuntza Eskakizuna; Ertzaintzako 1. Hizkuntza Eskakizuna; Hezkuntzako 1. Hizkuntza Eskakizuna; EAEko, Nafarroako eta Madrileko Hizkuntza Eskoletako 4. maila (ikasketa plan zaharra); EAEko Hizkuntza Eskolek emandako Maila aurreratua (ikasketa plan berria).....0,5 puntu.
 - IVAPeko 1. Hizkuntza Eskakizuna; HABEko 1. mailako ziurtagiria, Osakidetzako 1. Hizkuntza Eskakizuna; EAEko eta Nafarroako Hizkuntza Eskoletako 3. maila (ikasketa plan zaharra); EAE eta Nafarroako Hizkuntza Eskolek emandako Tarteko Maila (ikasketa plan berria).....0,25 puntu.

IRIZPIDEA: "**TREBAKUNTZA**"

6.- Hautagaiaren trebakuntza maila: gehienez 1 puntu

- Lizentziatura edo Diplomatura izatea:.....1 puntu.
- LH II, GMHZ, Batxilergoa edo gehiago izatea:...0,75 puntu.
- LH I, EMHZ edo IEE izatea:0,50 puntu.
- DBH edo Eskola Graduatua izatea:.....0,25 puntu.

Oharra: Atal honetan agertzen dena, Zerbitzu Anitzeko 1.mailako ofizial igeltsero eta Zerbitzu Anitzeko Peoi Espezialista lanpostuen hautaketarako baino ez da izango.

7.- Hautagaiak 2013an edota 2014an jasotako trebakuntza demostratua, berriro ere gaitzearen helburuarekin: gehienez 2 puntu

- 300 ordu baino gehiagoko trebakuntza ikastaro ez arautua:1 puntu.
- 200 ordu baino gehiagoko trebakuntza ikastaro ez arautua:.....0,75 puntu.
- 100 ordutik 200 ordura arteko trebakuntza ikastaro ez arautua:.....0,50 puntu.

Oharra: Ez dira kontuan hartuko 100 ordu baino gutxiagoko ikastaro ez arautuak, ezta iraupena, ez agiria eman izanaren data adierazten ez duten ikastaroak ere. Ez dira kontuan hartuko une honetan burutzen ari diren ikastaroak ere.

8- Zerbitzu anitzeko 1.mailako ofizial igeltsero lanpostuekin edo zerbitzu anitzeko peoi espezialisten lanpostuekin erlazionatutako trebakuntza: gehienez 8 puntu

- Iturgintza, lorezaintza, altxatzeko makinaria edo obrakoa, igeltserotza, pintura, elektrikari, arotzeria gaietan 300 ordu baino gehiagoko trebakuntza-ikastaro osagarriak:ikastaro bakoitzeko 2 puntu , gehienez 8 puntu.
- Iturgintza, lorezaintza, altxatzeko makinaria edo obrakoa, igeltserotza, pintura, elektrikari, arotzeria gaietan 200 ordutik 300 ordura arteko trebakuntza-ikastaro osagarriak: ikastaro bakoitzeko 1 puntu, gehienez 6 puntu.



- Iturgintza, lorezaintza, altxatzeko makinaria edo obrakoa, igeltserotza, pintura, elektrikari, arotzeria gaitan 100 ordutik 200 ordura arteko trebakuntza-ikastaro osagarriak: ikastaro bakoitzeko 0,5 puntu, gehienez 4 puntu.

Oharra: Ez dira kontuan hartuko 100 ordu baino gutxiagoko ikastaroak, ezta iraupena, ez agiria eman izanaren data adierazten ez duten ikastaroak ere. Ez dira kontuan hartuko une honetan burutzen ari diren ikastaroak. Atal honetan ez dira puntuatuko 7.atalean (TREBAKUNTZA atalean) puntuatu diren ikastaroak. Balorazio Batzordeak bere interpretazio irizpideen arabera zehaztuko du, hautagaiek aurkezten dituzten ikastaroetatik zeintzuk diren baloragarriak eta zeintzuk ez.

9- 2.mailako administrari-ofizial lanpostuarekin erlazionatutako trebakuntza: gehienez 8 puntu

- Administrazio arloarekin erlazionatutako 300 ordu baino gehiagoko trebakuntza ikastaro-osagarriak: ikastaro bakoitzeko 2 puntu, gehienez 8 puntu.
- Administrazio arloarekin erlazionatutako 200 ordutik 300 ordura arteko trebakuntza ikastaro-osagarriak: ikastaro bakoitzeko 1 puntu, gehienez 6 puntu.
- Administrazio arloarekin erlazionatutako 100 ordutik 200 ordura arteko trebakuntza ikastaro-osagarriak: ikastaro bakoitzeko 0,5 puntu, gehienez 4 puntu

Oharra: Ez dira kontuan hartuko 100 ordu baino gutxiagoko ikastaroak, ezta iraupena, ez agiria eman izanaren data adierazten ez duten ikastaroak ere. Ez dira kontuan hartuko une honetan burutzen ari diren ikastaroak. Atal honetan ez dira puntuatuko 7.atalean (TREBAKUNTZA atalean) puntuatu diren ikastaroak. Balorazio Batzordeak bere interpretazio irizpideen arabera zehaztuko du, hautagaiek aurkezten dituzten ikastaroetatik zeintzuk diren baloragarriak eta zeintzuk ez.

IRIZPIDEA: "LEHENAGOKO UDAL PROGRAMETAN PARTE HARTU IZANA"

10- Zierbenako Udalaren edo beste erakunde batzuen bitartez (Gehilan, Fundación Integrandó, Efficient, Behargintzak Suspergintza, Fundación EDE, Erakunde Publikoak, Udal Erakunde Autonomoak, Udalekin zerikusia duten Erakundeak, irabazi asmorik gabeko erakundeak...), udal programa desberdinetan 2014/01/01etik hilabete baino epe luzeagoz kontratatua egon ez izana5 puntu.



IRIZPIDEA: "**ESKARMENTUA**"

11- Lanpostuarekin erlazionatutako eskarmentua: gehienez 8 puntu.

- Eraikuntza edo Lorezaintza sektorean 48 hilabete baino gehiagoz 1.mailako edo altuagoko ofizial aritu izanagatik:.....8 puntu.
- Eraikuntza edo Lorezaintza sektorean 36 hilabete baino gehiagoz 1.mailako edo altuagoko ofizial aritu izanagatik:.....6 puntu.
- Eraikuntza edo Lorezaintza sektorean 24 hilabete baino gehiagoz 1.mailako edo altuagoko ofizial aritu izanagatik:4 puntu.

Oharra: Irizpide hau Zerbitzu anitzeko 1.mailako ofizial igeltsero lanposturako baino ez da baloratuko. Ez da kontuan hartuko 1.mailako edo altuagoko ofizial 24 hilabetez aritu izana, eskatzen den gutxieneko eskarmentu epea baita. Eskarmentua lan kontratuen edo Bizitza Laboralaren Txosten eguneratuaren bitartez egiaztatuko da.

ELKARRIZKETA FASEAN, baloratzeko irizpidea ondokoa izango da:

1.- Elkarrizketa pertsonala: gehienez 5 puntu.

Hautagaiak lanpostura nola egokituko diren baloratzeko balio izango du. Lanpostuarekiko hautagaiaren ezagutza profesionala, jarrera eta ahalmena baloratzeko dira.

7.- Eskaerak aurkezteko nahitaezko dokumentazioa, borondatezkoa eta epea.

Enplegu programa honetan parte hartzeko interesa duten hautagaiak Mehatzaldeko Behargintzan aurkeztu beharko dute eskaera orria era egokian beteta eta beharrezkoa den gainontzeko dokumentazioa, ezarritako epean. Gainera, puntu gehiago lortzeko helburuarekin, oinarri hauetan jasota datozen irizpideak betetzen direla egiaztatzen duten borondatezko dokumentazioa entregatu ahal izango da.

NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA

- Eskaera orria, beteta eta sinatuta.
- NAN/AIZ-ren kopia, edota lanerako eta bizileku-baimena.
- Lanbiden izena emanda egon izanaren epeak agertuko dituen ziurtagiri eguneratua (Lanbideko Alta eta Bajen ziurtagiria).
- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Eskaeraren Alta eta Berritzeko Dokumentua (EABD), hautaketa unerako eguneratua.
- Gizarte Segurantzak 2014ko azaroan egindako Bizitza Laboralaren txosten eguneratua.



ZIERBENAKO
UDALA



- Karneterako tamainadun argazkia eta CV eguneratua.
- 2014ko azaroan Zierbenako Udalak emandako Bizikidetzaren errolda agiri historikoa.
- Administrazioa eta Kudeaketa arloko ikasketen Goi Mailako edo Erdi Mailako Heziketa Zikloko tituluaren kopia (EMHZ Administrazio Kudeaketan, GMHZ Zuzendaritzari Laguntzan) edo baliokideak diren irakaskuntzak.
- B gida-baimena eta 1.mailako ofizial edo maila altuagoetan lan egin izana egiaztatzen duten kontratuak edo enpresa-ziurtagiriak (Zerbitzu anitzeko 1.mailako ofizial igeltsero posturako).

BORONDATEZKO DOKUMENTAZIOA

- 2014ko azaroan Lanbidek - Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako ziurtagiri eguneratua, hautagaiak ez duela langabezia-prestazioren edo laguntzaren bat jasotzen aitortzen duena.
- Laguntzak edo prestazioak jasotzen direla ziurtatzen duten dokumentuak.
- Familia liburuaren kopia.
- Zierbenako Udalak 2014ko azaroan egindako errolda-agiri kolektibo historikoa.
- Hautagaiak bere kargura dituen senideen elikagaiak ordaintzera behartzen duen sententzia irmoaren edo hitzarmen erregulatuaren kopia.
- Senide-harrerari dagokion ziurtagiriaren edo epaitegiko ebazpenaren kopia.
- 1.mailako ofizial igeltsero edo maila altuagoan lehenago aritu izanaren lan-kontratuak edo enpresa-ziurtagiriak (zerbitzu anitzeko 1.mailako ofizial igeltsero postuaren hautaketa prozesurako).
- Hautaketa prozesu honetan baloragarriak izan daitezkeen trebakuntza arautuaren edota trebakuntza osagarriaren tituluen kopiak.
- Euskararen ezagutza-maila egiaztatzen duen titulu ofizialaren kopia.

Beharrezko iritziz gero, Balorazio Batzordeak hautagaiei dokumentazio gehigarria eskatu ahalko die, egoera pertsonalak eta laboralak egoki baloratzeko; gainera, hautagaien egoera sozio-ekonomikoa zehazte aldera beharrezko irizten dituen txostenak ere eskatu ahalko ditu.

OINARRIAK KONTSULTATU ETA ESKABIDEAK ESKURATZEKO

Enplegu-programarako eskabideak eta hautagaien aukeraketa-prozesua arautzen duten oinarriak Zierbenako Udaleko web-orritik (www.zierbena.net) eta Meatzaldeko Behargintzaren web-orritik (www.behargintza-zm.com) jaitsi ahalko dira.

Zuzenean ere eskuratu ahalko dira (8:00etatik 15:00etara), Zierbenako Kultur Etxeko bulegoetan (San Roman auzoa, 6B. 48508 – Zierbena) zein Meatzaldeko Behargintzaren bulegoetan (Geltoki etorbidea, 14 – Behea. 48530 – Urtuella)



ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Programan parte hartzeko eskabidea eta gainontzeko dokumentazio guztia **2014ko azaroaren 17tik 28ra bitartean (15:00ak arte)** aurkeztu beharko da, **Meatzaldeko Behargintzan**.

2014ko abenduaren 2an argitaratuko da aukeraketa-prozesuan onartutako behin-behineko zerrenda, programan parte hartzeko eskatutako betekizunak bete dituztenen izenekin. Hauek elkarrizketa fasera igaroko dira. Elkarrizketa fasera igarotzeko aurrez aukeratutako behin-behineko zerrenda honetan ageri ez direnak prozesutik kanpo geratuko dira, eskatutako betekizunak bete ez dituztelako edota beharrezko dokumentazioa garaiz ekarri ez dutelako.

Alegazioak aurkezteko epea egongo da, abenduaren 2tik 4ra bitartean. Alegazioak Balorazio Batzordeak ebatziko ditu, aukeraketa-prozesuan onartutako behin betiko zerrenda argitaratu aurretik.

Abenduaren 5ean argitaratuko da elkarrizketa fasera igaroko diren aurrez aukeratutako behin-behineko zerrenda. Zerrendan bertan adieraziko da hautagai bakoitzak elkarrizketa zein egunetan eta orduetan egin beharko duen.

Elkarrizketa pertsonalak 2014ko abenduaren 9an eta 10ean egingo dira. Hautagaia elkarrizketa egiteko egokitu zaion egunean eta orduan agertuko ez balitz, aukeraketa prozesutik kanpo geratuko da, automatikoki, salbu eta behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan.

2014ko abenduaren 11n argitaratuko da aukeratutako behin-behineko zerrenda, eskuratutako puntuazioaren arabera ordenan.

Alegazioak aurkezteko tarte abenduaren 15era arte egongo da zabalik. Alegazioak Balorazio Batzordeak ebatziko ditu, aukeratuen behin betiko zerrenda argitaratu aurretik.

Bai aukeratuen behin betiko zerrenda, eskuratutako puntuazioaren arabera ordenan, bai ordezkoren zerrenda, 2014ko abenduaren 16an argitaratuko dira.

ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA

Enplegu-programan parte hartzeko eskabideak eta beharrezko gainontzeko dokumentazio guztia **2014ko azaroaren 17tik 28ra bitartean** aurkeztu beharko da **(15:00ak arte)**, Meatzaldeko Behargintzaren bulegoetan, helbide honetan:

Meatzaldeko Behargintza

Geltoki etorbidea, 14 - Bajo

48530 - Ortuella

Tel.: 944044958 // Faxe: 944044959

E-mail: oficinas@behargintza-zm.com

Jendaurreko arreta zerbitzua 08:00etatik 15:00etara.



8.- Hautatuen zerrenda.

Hautagaien kalifikazioa bukatuta eta lehiaketa faseko merituak eta elkarrizketa pertsonala puntuatu ondoren, Balorazio Batzordeak hautatuen zerrenda publikatuko du, puntuazio ordena errespetatuz. Batzordeak Meatzaldeko Behargintzako arduradunei emango die zerrenda hori, egiteke dauden kontratuak egin ditzaten. Hautatuak izan ez diren pertsonak, "ordezkoen zerrendan" geldituko dira, puntuazioren ordena errespetatuz.

9.- Oinarrien onarpena.

Hautaketa prozesuan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla san nahi du. Balorazio Batzordeak oinarri hauetan agertzen ez den edozer gai arautzeko eskubidea izango du eta horien interpretatzeko ere.

Ortuellan, 2014ko azaroaren 17an.

Sin.: Saulo Nebreda Trevejo
Kontseilari Delegatua